

Zer dira irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta zer desberdintasun daude haien artean?

Irabazi-asmorik gabeko erakundeak izendatzeko zenbait modu erabiltzen dira: Irabazi Asmorik Gabeko Erakundeak, Gobernuz Kanpoko Erakundeak (GKE), etab. Hala ere, ikuspegi juridikotik, irabazi-asmorik gabeko erakundeak hiru motatakoak baino ezin dira izan: elkarteak, fundazioak eta irabazi-asmorik gabeko kooperatibak (gizarte-ekimenekoak)

Zer desberdintasun daude haien artean?

FUNDAZIOA:

Xede sozial bat duen irabazi-asmorik gabeko erakundea.

Ezaugarriak:

- Fundazioaren emaitzak neurtzeko, haren zuzeneko jarduera eta bere ingurunean duen inpaktua hartu behar dira kontuan.
- Langile izatea eta Batzordeko kide izatea bateragarria da.
- Fundatzaileak edo fundatzaileek Patronatuko Batzordearen xede eta karguak itxita utz ditzakete, eta biziartekoak ere izan daitezke (fundazioaren xedeen gaineko kontrol handiagoa).
- Gobernu-organoa Patronatuko Batzordea da. Kudeatzaileek beren iritzia ematen dute eta balantzeak aurkezten dituzte.
- Zaila da estatutuak aldatzea. Fundazioaren xedera egokitu behar dute.
- Proiektuaren bideragarritasuna frogatzen duen fundazio-zuzkidura bat eskatzen du.

Eratzeko betekizunak:

- Bilera eratzailea.
- Eskritura publikoa.
- Eratze-akta.
- Estatutuak.
- Batzordeko kideek kargua onartzea.
- Hasierako zuzkidura benetan egin dela egiaztatzea.
- EAEko Fundazioen Erregistroan izena ematea.
- IFK eskatzea.

Aplikatu beharreko legeria:

- [Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legea.](#)

ELKARTEA

Edozein motatako xedea duen irabazi-asmorik gabeko taldea. (Xede soziala dutenek onura publikoaren deklarazioa eska dezakete).

Ezaugarriak:

- Gobernu-organoak Batzar Nagusia eta Zuzendaritza Batzordea dira.
- Bazkidea edo Zuzendaritza Batzordeko kide izatea eta elkarteko langile izatea bateragarria da (onura publikokotzat jotakoetan muga batzuekin).
- Sarbidea mugatu daiteke justifikatutako arrazoiengatik, estatutuetan jasota badaude.
- Erabakiak demokratikoki hartzen dira Batzar Nagusian: bazkide bakoitzak boto bat.
- Xedeak alda daitezke, estatutuak aldatuz gero.
- Ez da eskatzen berriazko ondare-zuzkidurarik.

Eratzeko betekizunak:

- Bilera eratzailea.
- Eratze-akta.
- Estatutuak.
- EAEko Elkarten Erregistroan izena ematea.
- IFK eskatzea.

Aplikatu beharreko legeria:

- [Euskadiko Elkarteei buruzko Legea.](#)

GIZARTE-EKIMENEN KOOOPERATIBA

Xede sozioekonomikoa duen irabazi-asmorik gabeko taldea.

Ezaugarriak:

- Langilea eta zuzendaritzaren ordezkari izatea bateragarria da.
- Hautaketa demokratikoki egiten da bazkide diren langileen artean, eta bazkide-kopurua mugatu daiteke, baina legezko ehuneko bat bete behar da.
- Gobernu-organoak Batzar Nagusia eta Zuzendaritza Batzordea dira.
- Xedeak alda daitezke, estatutuak aldatuz gero.
- Kooperatibista bakoitzeko kapital-ekarpen bat eskatzen da.

Eratzeko betekizunak:

- Bilera eratzailera.
- Eratzearen eskritura publikoa.
- Estatutuak.
- Kooperatiben erregistroan inskribatzea.
- IFK eskatzea.

Aplikatu beharreko legeria:

- [Euskadiko Kooperatiben Legea.](#)

Zer dira

IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDEAK?

Ikuspegi juridikotik, irabazi-asmorik gabeko erakundeak hiru motatakoak izan daitzeke soilik:



FUNDAZIÓA



ELKARTEA



GIZARTE-EKIMENEN KOOPERATIBA

Zein dira haien arteko desberdintasunak?

FUNDAZIOA

- Xede soziala duen irabazi-asmorik gabeko erakundea.
- Patronatua da gobernu-organoa.
- Zaila da xedeak eta estatutuak aldatzea.
- Fundazio-zuzkidura eskatzen du.

ELKARTEA

- Edozein motatako irabazi-asmorik gabeko taldea.
- Gobernu-organoak: Batzar Nagusia eta Zuzendaritza Batzordea.
- Erabaki demokratikoak: bazkide bat, boto bat.
- Ez da eskatzen berriazko ondare-zuzkidurarik.

GIZARTE-EKIMENEN KOOPERATIBA

- Xede sozioekonomikoa duen irabazi-asmorik gabeko erakundea.
- Gobernu-organoak: Batzar Nagusia eta Zuzendaritza Batzordea.
- Bazkide kopuru mugatua eta kapital-ekarpena.
- Ez da eskatzen berriazko ondare-zuzkidurarik.



BizkaiaGara

Eginez izan · Tiempo de acción

